

Elizpeko argiztapen monumental berria eta ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzako maketa irisgarria Santa Marian



Santa Maria Fundazioa Katedralak maiatzean aurkeztu ditu katedrala espazio kultural gisa ez ezik, erlijio-zentro gisa ere bultzatzen duten eta oraindik ere publiko mota guztietara hurbilduko duten bi ekimen.

Topaketan izan dira, besteak beste, **Ramiro Gonzalez Vicente**, Arabako Diputatu Nagusia; **Cristina Gonzalez Calvar**, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioako Foru Diputatu; eta **Sergio Fernandez**, Arabako ONCEko zuzendaria. Haiekin batera izan dira, halaber, **Jon Lasa** eta **Leandro Camara**, Santa Maria Fundazioko kudeatzailea eta zuzendari teknikoa, hurrenez hurren, eta **Victor Sanz Yrazu** diseinatzailea eta maketista.

Aurkeztutako lehen ekimena Santa Maria elizpeko **argiztapen** monumental funtzionala da. Barruan, hiru portada eta eskultura-multzo bat ditu, herrialdeko arte gotikoko piezarik onenetarikoak. Hiru une historiko ezberdinetako erliebeak eta irudiak ditu, XIV. mendearen hasieratik XVI. mendearen bigarren erdira bitartekoak.

Argiztapen berriaren helburua da elizpea urte osoan kultur gune garrantzitsu gisa bultzatzea. Modu horretan, horri esker, Katedralako alde hori aberastuko da, portaden eta eskulturen gaineko argiteria xehearekin, xehetasun artistikoa hobeto ikus ahal izateko.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren diru-laguntza jaso duen argiztapen-sistema berria hainbat motatako foku-multzoak osatzen du, eta aukera emango du argiaren intentsitatearekin, orientazioarekin eta fokuratzearrekin jolasteko nahiz txandaka pizteko eta itzaltzeko, irudiak bereizita erakutsi eta nabarmentzearen.

Sistema erabat informatizatuta eta domotizatuta egongo denez, [katedrala bisitatzeko modalitate bakoitzerako](#) ikuskizun jakin bat programatu ahal izango da. Era horretan, ikuskizun horren bitartez, herritarrei

erakutsi eta azaldu ahal izango zaizkie eskultura-multzoen eta espazio arkitektoniko osoaren alderdi estetikoak eta ikonografikoak nahiz historikoak, eraikuntzakoak eta arkitektonikoak.

Gainera, tableta edo antzeko batetik maneia daitekeen sistema informatiko horri esker, gidariek zuzenean esku hartu ahal izango dute bisitan, eta, modu horretan, beren azalpen-diskurtsoa garatu ahal izango dute, azpimarratu nahi den eskultura-multzoaren zatia une bakoitzean erakutsiz.



Argiztapen berriak Santa Maria elizpea ere indartuko du kultura-arloko ekitaldietarako leku gisa, elizpeak eta jarduerak egingo diren eremu zehatzek argiztapen orokorra izango baitute. Sistema horri esker, argiaren kalitatea eta energia-eraginkortasuna hobetuko dira, 2009an instalatutako kontsumo handiko argiztapen zaharkituaren ordezkari 88 LED foru jarrita.

Halaber, elizpea kultur gune gisa indartzeko, 2024an Paterninako kaperako polikromien proiektio digitaleko ekipoak berritu ziren, 2008koak zirenak, eta "Argiaren Elizpea" ikuskizunak distira osoa izatea lortu zuten.

Katedrala ikusteko desgaitasuna duten pertsonengana hurbiltzeko maketa

Aurkeztutako bigarren ekimena Santa Maria Katedralaren **maketa tifologikoa** da, ikusmen-urritasuna duten pertsonen, **kultura inklusibo eta berdintasunezko esperientzia** batean, katedrala ukimenaren bidez ezagutu ahal izateko diseinatu eta egin. Maketa tifologiko horien hiru ezaugarriak hiru dimentsiotakoak, solidoak eta taktikoki esanguratsuak izatea dira.

Victor Sanz Yrazu arduratu da maketa hau egiteaz. Bi urte baino gehiago behar izan ditu, eta **ONCEn** aholkularitza izan du horretarako. Azken emaitza 90x91x75 zentimetroko maketa bat da. Horren helburua da, katedral bat erakusteaz gain, "Katedralaren inguruan pasealekua" eskaintzea. Besoak luzatuz maketa osoa har daiteke.

Santa Mariara egingo diren bisitetan erabili ahal izango den eredu honetan, kriptan, erabilitako testurak garrantzitsuak dira, katedrala, eraikuntza-elementu askotarikoak eta alboko eraikinak bereizten baitituzte. Era berean, aipagarriak dira erabilitako koloreak, formak nabarmentzeko ahalik eta kontraste kromatikoa handiena lortu nahi izategatik eta ikusmen murritua duten pertsonen bereizteko aukera emategatik. Halaber, gidarien laguntza izango dela uneoro, maketa azaltzeko nahiz sor daitezkeen zalantzak argitzeko.





POETAK MAIATZEAN ETA AHOTSAK ELIZPEAN EKIMENEKIN BETE EGIN DA BESTE BEHIN KATEDRALA

Beste urte batez, poesiak eta musika koralak jende askoren interesa piztu du, Santa Mariara herritar ugari hurbildu baitira Poetak Maiatzean eta Ahotsak Elizpean kontzertuen baitan emandako errezitaldiez gozatzeko.

Estrella Morente, "Mis poemas y un canto" lanaren aurkezpenarekin, eta Gurasoak San Viator Abesbatza, "Y los sueños... cine son" errezitaldiarekin, Gasteizko Poesiaren Nazioarteko Jaialdiaren XIII. edizioako gau-ekitaldietako protagonistak izan ziren Katedralean maiatzaren 5ean eta 24an, hurrenez hurren.

Maiatza musika koralaren hilabetea ere izaten da Santa Marian, Ahotsak Elizpean kontzertuen eszenatokia, aurten 11. edizioa betekoa duena. Guztira bost musika emanaldi izaten dira, eta horietan Lurraldeko hogeita bat abesbatza helduk hartzen dute parte, **ekainera** bitarte. Modu horretan, **ekainaren 13an, ostirala, Maiora Canemus, Gasteizko Lagunak, Gurasoak Abesbatza** eta Bi-hotsak Abesbatza izango dira gau-ekitaldiko talde protagonistak. Sarrera doakoa da, baina aurrez gonbidapenak jaso beharko dira (pertsona bakoitzeko bi) Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3).



LUIS ARAMBURU MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUAK

Katedraleko elizpean, ekainaren 18an eta 19an, zehazki, Luis Aramburu Musika Eskolako ikasleen ikasturte-amaierako entzunaldiak izango dira beste behin. Sarrerak Musika Eskolan bertan eskuratu ahal izango dira ekainaren 9tik aurrera.

Programa:

- Ekainak 11, asteazkena: Kontzertua plazan Jueverasic Band eta Txiki Band taldeekin. 19:15.
- Ekainak 18, asteazkena: Entzunaldiak elizpean. Pianoa, 19:15.
- Ekainak 19, osteguna: Entzunaldiak elizpean. Abesbatzen, antzinako musikaren, ganbera-taldeen eta haize-instrumentuen emanaldiak, besteak beste. 19:15.



JAKIN-MINA ZIURTAGIRI BANAKETA ARABAN

2024-2025 Bizkaiko Jakin-mina edizioan parte hartu duten DBHko 4. mailako ikasleek bertaratzeko-ziurtagiria jaso dute maiatzaren 28an, astelehena, katedralean. Ikasleak ziurtagiriak banatzeko ekitaldira joan dira beren tutore edo orientatzaileekin, eta, ondoren, bisita gidatua izan dute.

Jakin-mina EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko DBHko 4. mailako ikasle guztiei zuzendutako programa da eta Jakiundeak antolatzen du, zientzia, arte eta letren euskal akademia. Deialdia ikasturtearen hasieran iristen da ikastetxeetara, eta ikastetxeek ematen dizkiote Jakiunderi bost hitzaldiko zikloan parte hartu nahi duten ikasleek izenak. Zikloa azarotik martxora bitartean egiten da, hilean hitzaldi batekin. Zikloa osatzen duten bost hitzaldietatik lautara gutxienez joaten diren inskribatuek bertaratzeko-ziurtagiria jasotzen dute zikloa amaitutakoan.

